



## Egilea / El autor

RAMON SAIZARBITORIA (Donostia, 1944). Soziologoa eta idazlea. 1967an LUR argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan *Oh Euzkadi* Literatur aldizkaria. Euskal narratzailek ezagunenetakoa eta baloratuenetakoa bat da bai Euskal Herri barruan bai kanpoan ere.

Hauek dira bere nobelen izenburuak: *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1976), *Ene Jesus* (1976), *Hamaika pauso* (1995), *Bihotz bi* (1996), *Gorde nazazu lurpean* (2000) (jatorrian liburu hone-takoak izanik, argitarapen berria izan zutenak: *Gudari zaharren gerra galdua*, 2000; *Rossetti-ren obsesioa*, 2001; eta *Bi bihotz, hilobi bat*, 2001), *Martutene* (2012) eta *Lili eta biok* (2016).

Galzteentzako sail batean argitaratu ditu beste bi kontakizun: *Kandinskyren tradizioa* (2003) eta *Miren eta erromantizismoa* (2019).

*Aberriaren alde (aberriaren kontra)* saio aipagarria 1999koa da.

Kritika saria eta Euskadi Literatura saria irabazi du hainbat aldiz.

## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ehun metro**

Egilea / Autor: **Ramon Saizarbitoria**

Saila / Colección: Narratiba, 124

ISBN / EAN: 9788491095071

Salneurria / Precio: 12,50 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 112

Koadernaketa / Encuadernación: Rustika / Rústica

Formatua / Formato: 15 x 22 cm

Materia: Helduentzako literatura / Literatura adultos



## Lana / La obra

*Ehun metro* nobela 1976an argitaratu zen, nahiz eta 1974rako amaituta egon. Franco diktadorea 1975ean hil zen, baina 1976an argia ikusi zuen nobelaren lehen edizioak ez zuen artean indarrean zegoen zentsura-legerik gaudituz, eta, edizioa bahitu eta liburu-dendetatik erretiratzearekin batera, egilea bera ere prozesatu eta epaitua izan zen. Urte berean, ordea, zentsura-legea desagertzearekin batera, nobela liburu-dendetara itzuli zen.

Behin eta berriz aipatu dira nobelaren arkitektura, kontakizunean erabilitako teknika, baliabide eta estrategia aberatsak. Eta hori guztia argumentu xume baten euskarri: poliziarengandik ihesi doan aktibista batek zerraldo erori bitartean egindako ehun metroren kontaketa. Metro horietan, polizien tiro eta jazarpenari ihesi, bere bizitzako pasadizo batzuk dakartza oroimenera protagonistak.

Iheslariak berak aukeratutako taberna itxi bateko terrazan eserita dagoen lekuko anonimoarengana bideratzen ditu urratsak. Huraxe aukeratu du, gero eta barnerago susmatzen duen heriotzaren zafaldiekin batera, helduleku, eta sakrifizio erritual baten aurrean bageunde bezala, testigu harixe eskainiko dio bizitza ofrendan. Zergatik eta zertarako hil modu antzu horretan, dio *ritornello* gisa errepikatzen den kantak.

Nobela hunkigarria gertatu zen argitaratu zenean, eta gaur egun ere berdin hunkitzen gaitu.